



Uharteko udalaren musika eskola
Escuela municipal de música de Huarte

Pl. San Juan, 1
31620 UHARTE / HUARTE
(Nafarroa / Navarra)
IFZ / CIF – P 3112100 G
Tel. 948 33 07 61
Fax 948 33 19 13
ayuntamiento@huarte.es
www.huarte.es

UHARTEKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

1.- MATRIKULAZIO EPEAK.

• UNE HONETAN MUSIKA ESKOLAN IZENA EMANA DUEN IKASLERIAREN MATRIKULAZIOA.

2025eko maiatzaren 23a arte.

Matrikulazio epe hau amaituta, instrumentu espezialitateetan libre geratzen diren plazak 6 urteetako Musika Hastapeneko ikasleei eskainiko zaizkie, ekainaren 2tik ekainaren 6rako epealdian. Instrumentu baterako eskaerak libre dauden plazak baino hegiago balira, zozketa publiko bidez emanen dira. Itxaron zerrenda bat eratuko da baztertutako pertsonekin. Ikasturtea hasi baino lehen plazaren bat libre geratuko balitz, zerrendan ezarritako hurrenkeraren arabera eskainikoa da.

Beste instrumentu espezialitatean izena ematen duten ikasle ohiek hastapeneko ikasleen ondotik egin beharko dute, ekainaren 11tik 13ra. Eskatutako instrumentuak lekuri ez balego, zerrenda batean parte hartzera pasak oda, betiere 6 urtetako hastapen musikalekoikasleen ondotik, baldin baleude.

Beti izanen du lehentasuna erroldatutako ikasleak erroldatu gabekoaren aurretik.

• IKASLE BERRIENTZAKO MATRIKULAZIOA.

2025eko ekainaren 16an, 17an, eta 18an.

2025eko irailaren 3an, 4an eta 5ean.

LIBRE DAUDEN PLAZAK: Ikasle ohien matrikulazio epea amaitu ondoren libre geratzen direnak. Instrumentu batean plaza librerik ez balego, itxaron zerrenda bat eratuko da, ikasturte horretarako balioa izanen duena, eta hauen aurretik beti izanen dute lehentasuna 6 urteetako Musika Hastapeneko ikasleak eta ikasle ohiak, baldin baleude.



Uharteko udalaren musika eskola
Escuela municipal de música de Huarte

Pl. San Juan, 1
31620 UHARTE / HUARTE
(Nafarroa / Navarra)
IFZ / CIF – P 3112100 G
Tel. 948 33 07 61
Fax 948 33 19 13
ayuntamiento@huarte.es
www.huarte.es

2.- 2025/26 IKASTURTERAKO TASAK.

Urtero onartzen dira ikasturte bakoitzari dagozkion tasak. Erroldatutako ikasleentzat errenta tarteak ezartzen dira. Modu honetan, matrikulazioaren prezioa familien errentaetara egikitzen da. Baremo hau kontuan hartzeko errenta aitortpena aurkeztea ezinbestekoa izango da.

Kontuan hartuko dira udaleko erregistro bulegoetan edota declaracion-aitortpena@huarte.es posta elektronikoa aurkeztutako errenta aitortpen osoak:

Uztailaren 9a arte ekainean egindako matrikuletarako.

Irailaren 10a arte irailean egindako matrikuletarako.

Ez dira kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako errenta aitortpenak.

Errenta aitortpena aurkezten ez bada edo epez kanpo aurkezten bada, tasen tarterik handiena aplikatuko da.

Erroldatu gabeko ikasleentzat errenta tarterik gabeko tasak ezartzen dira.

3.- EPEZ KANPOKO MATRIKULAZIOA.

Zuzendaritza taldeak aztertuko du. Onartua suertatzen baldin bada, burutu ahalko da betiere plaza libre baleude musika hastapenean, musika hizkuntzan edota eskatutako instrumentuan.

Matrikula ikasturteko lehendabiziko hiruhilabetez zehar egiten bada, ikasturte osoa ordainduko da. Urtarrilatik aurrera eginez gero, dagokion zati proportzionala ordainduko da.

4.- MATRIKULA GAUZATZEKO LEKUA.

Uharteko Udalaren Musika Eskolan, Virgen Blanca kalea, 2 – 2. solairua.
Orduetgia: 16:30etatik 18:30etara.

Matrikula gauzatzeko interesa duten pertsonen, matrikula eta tasen orria jaso ahalko dute musika eskolan edo www.huarte.es udalaren web orrian. Edozein kontsulta egin daiteke musica@huarte.es helbide elektronikoa.



5.- ORDAINTZEKO ERAK.

Ikasleak ordaintzeko dauden bi eratako bat aukeratuko du:

EPE BAKARRA. Maiatzean eta ekainean eginiko matrikulen zenbatekoa abuztuanez bideratuko da. Irailean eginiko matrikulenak berriz, hilabete horretan bertan.

BI EPE. Zenbatekoak abuztuaren eta azaroaren edo irailean eta azaroaren bideratuko dira, matrikula egin den epearen arabera.

Matrikula gauzatzeak berekin dakar ikasturte osoaren ordainketa (iraila – ekaina). Behin bideratzea eginik, ez da zenbatekoa itzuliko.

Ordainagirien itzulketak eragindako gastuak kobratuko dira.

Ikasturtea hasi baino lehen, baina lehen kobratzea eginda, baja ematen badu, matrikularen ezeztatzeak tasetan matrikula kontzeptupean ezarritako eta ordaindutako zenbatekoa galtzea suposatuko du.

Behin ikasturtea hasirik, ez da inola zere itzulketarik egingen, iraupen luzeko ospitaleratze edo etxeko gaixotasunak: 90 egun, gutxienez.

6.- IKASTURTE BAKOITZEKO IKASGAIK.

Musika Eskolako Ikasketa Planak ikasturte bakoitzean egin behar diren ikasgaiak ezartzen ditu. Matrikulak berekin dakar ikasgai guztietara joateko konpromisoa. Ikasgai horietako batera ez joateak gainerako espezialitateak jasotzeko eskubidea galtzea dakar, arrazoi guturrik eta zuzendaritza taldeak onartutako kausetan izan ezik. Honek ere datorren ikasturterako matrikula ezintasuna ekarriko du, salbu egiteko falta den irakasgaira joaten baldin bada.

Ikasle helduek aukeratu ahalko dute irakaskuntza instrumentala bakarrik egiten duen edota irakaskuntza instrumentala eta beste irakasgai batzuk ere egiten dituen.

Ikasle heldutzat hartuko da 14 urtetik aurrera edo urte naturalean beteta daudenean.